

«Liburuak azaltzen du nola eraikitzen den emakume bat, nola bihurtzen den gizaki libre bat emakume»

Bere azken lana, «Dendaostekoak», argitara atera berritan etorri zaio Euskadi Literatura Saria «Kontrako eztarritik» bere aurreko lanagatik. Eta biak korapilatu zaizkio, plazan jendaurrean dabilzan emakumeen ahotsa eta dendaoste batean itzalxeago dabilzan emakumeena.

Zorionak. «Kontrako eztarritik» lanagatik eman dizute euskarazko saiakerari dagokion Euskadi Literatura Saria.

Sorpresa eta poz handia sentitu ditut, jakinagatik sariek bere baitan daukatela tranpa, ez baitut sinisten justizia egiten dutenik. Batzuek esaten didate «merezita» eta ez diot horri uko egiten, baina beste batzuek ere merezita edukiko luketela badakit.

Hori esanda, izugarritzko poza sentitu dut liburu hau airtortua izan delako eta eskertza handia testigantzak eman dituzten bertsolariekiko. Iruditzen zait testigantzak gutxietsi egin ohi direla, ez direla politikotzat jotzen, subjektibotasunaren izenean. Badirudi idazleak, kasu honetan nik, ematen diela zentzu politikoa testigantzei eta ez dut uste horrela denik. Nire lana sailkatzea eta izendatzea izan da, baina hamabost bertsolari horien testigantzek berez daukate eduki politikoa eta intenzioa, neuk eman gabe. Ilusioa egiten dit norbaitek esaten didanean «Kontrako eztarritik» laneko ahotsek balio izan diotela hausnartzeko. Jardun eta ofizio askotako emakumeen mezuak iritsi zaizkigu esanez

«hauxe da gurean gertatzen dena eta balio digu». Tresna bezala balio duela ikusteak pozten nau eta baita bertsolaritzatik kanpoko bost epailek tresna horri taxua ikusi izanak ere. Bertsolaritza oso gauza partikularizat joa da eta arriskua dago geure mundutxoari bakarrik dagokion liburutzat hartua izateko. Nire asmoa bazen leiho bat irekitzea bertso sisteman, eta behatxulo bat beste edozein sistematan, bertsolaritzaren bitartez.

Irakurri ez duenarentzako, nola definituko zenuke «Kontrako eztarritik»?

Testigantzetan oinarritutako saiakera bat da. Liburuan 22 mekanismo izendatu eta azaltzen dira, hamabost bertsolari emakumeren bizipenetatik abiatuta. Emakumeon mintzo publikoa eta mugimendu margina menosten, murrizten, oztopatzen duten 22 mekanismo erakusten dira liburuan. Liburuak azaltzen du nola eraikitzen den emakume bat, nola bihurtzen den gizaki libre bat emakume; akatsa barneratuaraziz, protagonismoa zigortuz, hipersexualizatuz, desexualizatuz, gizonen begiradatik irakurritz, aitakeriaz, infantilizazioz... Liburuaren tesi nagusia honakoa da: badago sistema bat zeinak produzitzen eta birproduzitzen dituen emakumeak eta gizonak kategoria sozial modura eta elkarren arteko botere harremanak definitzen eta sortzen dituen. Badago sistema bat hainbat patroiren bitartez –kasu honetan 22 identifikatzen dira– gizakia emakume bihurtzen duena. Sistema horrek berak hainbat mekanismo dauzka gizakia gizon bihurtzeko. Horren nega-

tiboan ikus daiteke nola eraikitzen den beste parte ere, gizonarena.

Apustu garrantzitsua izan da. Zu bertsolaria zara, bertso mundua zure etxea da.

Beldur handiarekin egin nuen, zigortua izateko beldurrarekin, aitari bizarrak ukitzen dizkion alabaren sentsazioarekin. Nik uste dut oso beldurtia naitzela, baina normalean egiten dudala sinisten dudana horren alde, beldur eta guzti. Aspalditik sentitzen nuen lehen aipatu dudana leihoa zabaltzeko beharra. Hainbat urtetan saiatu gara gauzak eraldatzen, proposatzen, eztabaidatzen... eta hor jarraitzen dugu. Hala ere, liburu hau bertso munduaren barruan argitaratzea ezinezkoa zela ere bagenekien. Nik nahi nuke bertsolaritzak herrigintzatik bai, baina artetik eta analisitik ere egitea irautera, eta iruditzen zait horretarako irekita egon behar duela eztabaida artistikoetara eta harremanetan beste kultur alorretan gertatzen ari diren eztabaidekin.

Gure sistema oso barrura begira antolatuta daukagula iruditzen zait. Horrek bizirau-pen bat eta autonomia bat ematen digu, horrek ahalbidetu ditu hainbat gauza, baina, aldi berean, gauza batzuk eztabaidatzeko lekuri ez dago, oso-oso antolatuta dagoelako zertaz, non eta zein pausoren bitartez hitz egin behar den. Nik liburu hau idazle bezala idatzi dut eta ezin dut idatzi neure buruari pentsatzeko askatasuna eman ezean.

«Kontrako eztarritik» lanak zeresan handia eman du, ertz askotan gainera.

UXUE ALBERDI ESTIBARITZ

IDAZLEA ETA BERTSOLARIA

Euskarazko saiakerari dagokion Euskadi Literatura Saria irabazi berri du. Bigarrenena da; 2016an, «Besarkada» lanagatik, euskarazko haur eta gazte literaturako saria jaso zuen. Sariak bere azken lana eskuartean duela harrapatu du, «Dendaostekoak» liburua.

Bai, jende asko gerturatu zai-
gu, asko bertso mundukoak
eta beste asko bertso mundu-
tik kanpokoak: kazetariak, ak-
toreak, abeslariak, kirolariak,
suhiltzaileak... Hainbat arlotako
emakumeek aipatu digute,
eta baita gizonak ere, esanez
beren jardunetan naturaltzat
edo txikikeriatzat jotzen diren
bizipen asko elkarrekin pilatu-
ta ikusteak, sistema baten ba-
rruan ordenatuta ikusteak, la-
gundu diela zapalkuntza
ulertzen. Liburuak zerbait mu-
gitu du, ea orain “zerbait” hori
bideratzen asmatzen dugun
eta gai garen dagozkigun ardu-
rak hartzeko eta proposamen
eraikitzaileak egiteko, bakoitza
bere posiziotik.

**Bertsolaritzari begiratzeko
toki berri bat proposatu du-
zue liburuan.**

Orain arte bertsolaritzari bu-
ruz teorizatu duten liburuetan
ardatz horiek ez ziren ager-
tzen. Bertsolaritza irudikatu
izan da jardun dialektiko bat
bezala, generorik, gorputzik ez
bage-neuka bezala, burutik bu-
rura, bertsolaritza testuan ba-
karrik balego bezala. Baina
gorputz osoarekin egiten dugu
bat-bateko bertsolaritza, gor-
putz horiek irakurriak dira, se-
miotika bat sortzen duten be-
ren artean... beharra hortik
zeterren.

Hausnartu nahi nuen nola
eraikitzen eta deseraikitzen
den bertsolariaren autoritatea
testutik kanpo. Gure arazoak
ez dira teknika batekin ezin
moldatua, gehiago da posizio
bat aurkitu ezina, eta horrek
ez dauka zerikusirik hamar-
zortziarekin edo arrazoi onak
botatzearekin. Emakumeon
ahotsak jendartean daukan to-
kiarekin eta funtzioarekin du
zerikusia, esan dezakegunare-
kin eta esan ez dezakegunare-



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | FOKU

*«Bertsolaritza
irudikatu izan da
jardun dialektiko
bat bezala,
generorik, gorputzik
ez bage-neuka
bezala, burutik
burura,
bertsolaritza
testuan bakarrik
balego bezala»*



kin. Andreon ahotsari jartzen
zaizkion mugekin eta zigorre-
kin. Mekanismo multzo ikara-
garria dago martxan isil gaite-
zen, eta hitz egitekotan,
neurritz, abegikor eta bigun
aritu gaitezen.

**Sariaren berri iritsi da justu
zure azken lana, «Dendaoste-
koak», argitaratua izan dene-
an.**

Bai, bitxia da. “Kontrako ezta-
rritik” liburuari buruz hitz egi-
ten ari naiz bertsoaren plaza ia
geldirik dagoenean. Orain
hain da prekarioa bertsolari-
tzaren egoera kasik lotsagabea
baitirudi liburuari buruz hitz
egiteak, nahiz eta genero des-
berdinkeria pandemia bera ze-
harkatzen duen errealtatea
izan eta horri buruz hitz egin
behar den. Baina egia da ez

nuela espero udazken honetan
liburu horri buruz hitz egiten
aritzea. Nik udazken honetara-
ko “Dendaostekoak” nuen bu-
ruan. Zirriborro nagusia egin-
da neukan itxialdia hasi
zenerako.

**«Dendaostekoak» bi ahizpen
arteko elkarrizketa bizia
da –zure ama eta izeba–, bro-
datzeko makinaren «klik-
klak»-a eta jostekoaren
«trrrrrrr»-a entzuten den bi-
tartearen.**

Bi ahotsek josten duten liburu
bat da, elkarrekin, elkarrizketa
bat da, baina batzuetan mono-
logoak tartekatzen dira. Hain-
bat gaik zeharkatzen duten li-
burua da, geruzaka osatuta
dagoena. Zakarretarako piltzar
horiek albaindu eta bukaeran
osotasun batera iritsi nahi du.

Hasieran oihaltzatiak erakus-
ten dira, eta asmoa da amaie-
ran soinekoa ikus dadila. Garai
bat kontatzen du, jende modu
bat, harremantzeko modu bat,
lan munduari eta merkataritza-
ri lotutako mundu bat, fa-
miliei eta giza harremanei lo-
tutako mundu bat...

**Ez da fikzioa, zure aurrekoen
bizitza da.**

Nire aurrekoen kontakizuna
da, ez nirea. Zenbait arrisku
ikusten nizkion liburu honi,
batzuk errealak eta beste ba-
tzuk literaturari eta hizkuntza
literarioari buruz dauzkagun
ideiek, literatura serioak izan
beharko lukeenari buruz dauz-
kagun ideiek edo mesfidan-
tzek zeharkatuak. Nioen «kon-
tatu nahi dudana hau da eta
zergatik sortzen dizkit horrela-

ko erreparaoak hau kontatze-ak?».

Beste arrisku bat zen nolako narratzaileak diren, eta zer egin behar nuen nik haien hizkuntzarekin. Nik ez dut haiek esan gabekorik idatzi, baina ezin nuen idatzi beraiek hitz egiten duten bezala.

Bi euskaldun berri dira, batzuetan akatsekin eta narras hitz egiten dutenak, hizkuntzarekin oso harreman bitxia dutenak, baina aldi berean oso interesgarria iruditzen zitzaidan euskal liburu bateko narratzaileak euskaldun perfektu jator peto-petoak ez izatea, baizik eta herri honetako euskaldun askok bezala hizkuntzarekin harreman konplexua daukatena. Hizkuntza bat sortu behar nuen “akatsaren” neurrira eta akatsa kontagarri bihurtu. Literatura al da hizkuntza hau? Zer da literarioa? Ezin nuen liburuko hizkuntza maila akademikora edo maila poetikora jaso, esentzia galduko luke. Narratzaileen hitz egiteko moduak islatzen du beraien izateko modua, eta baita beste jende askorena ere. Baina... nola atera hizkuntzari txinpartak kontalariaren tokia aldeztu aurretik gutxietsia bada?

Narratzaileek kalearen paretik kontatzen dute beren herriaren kronika soziala, politikoa, ekonomikoa... gauza oso garrantzitsuak, begirada josteko makinatik altxatu gabe bezala.

Nire ustez kontaketa indarra hori da, ez direla batere “inportanziosoak”, batere solemneak. Solemnitatearen antipodetan egoteak ematen dio sinesgarritasuna beren diskurtsoari, xumea delako eta horregatik ederra. Ez dira bozgorailutik esandako hitzak, ez

dira aldarriak, ez dira sinatuko zenituzkeen hitzak, baina porositate handiko hitzak direla esango nuke: ingurua, espazioa, jendea, gatazkak, garaiak guztiz sartzen zaizkien hitzak dira.

Merkataritza txikiaren aldeko aldarri bat ere bada. Herriaren arnasa eta taupada dira denda txiki horiek.

Nik ez dut idatzi denda txikiak salbatzeko, baina egia da proposamen guztiak, gai guztiak eta ikuspuntu guztiak direla ideologikoak. Analisisirik eta teoriarik egin gabe, liburu ho-

«Oso interesgarria iruditzen zitzaidan euskal liburu bateko narratzaileak euskaldun perfektu jator peto-petoak ez izatea, baizik eta herri honetako euskaldun askok bezala hizkuntzarekin harreman konplexua daukatena»

nek erakusten dizkigu gure espazioekin, gure kaleekin, inguruetan gaituen jendearekin harremanetarako modu batzuk niretzako bizitzan bizigarriagoa egiten dutenak. Azken hamarkadetan deshumanizatzaileak diren espazioak sortzen ari gara.

Liburuan erakusten diren kale horiek jende mota desberdin askorentzat daude eginak, zikinagoak dira, baina zikinak erakusten du zer ari den gertatzen. Sigmako langileak buzoarekin ateratzen direnean... ez dira zikinak, beharginak dira. Dendara

datozenean bezeroak ez erostera, ezpada zerbait galdetzerara, liburuak begiratzera... espazio batzuetan trabarako jendea litzateke, baina herri baten egunerokoan elkarri eusten dion jendea da, intimitate bat partekatu ez arren, komunitate bat partekatzen duen jendea. Hori desagertzen bada tristeagoak izango gara denok. Gaur egun denda-ostea gero eta ezkutuago dago eta erakusleihoa gero eta ageriago. Erakusleihok ez du uzten ikusten dendaostean zer gertatzen ari den. Guk moldatzen dugu espazioa, baina espazioak moldatzen gaitu gu. Eta harreman horri buruz pentsatzea garrantzitsua da.

Emakumeak, emakumeen egoerak, emakumeen aholak, haien arteko konplizitatea... Feminismoa presente dago liburuan.

Bai, bi narratzaileak feministak dira. Feminismoa beti izan da herritarra, kolektiboa, emakume taldeen ingurukoa. Liburuan erakusten den feminismoa ez da akademikoa; hiriburutik iristen diren liburuak irakurri, eztabaidatu, gauzak egin, elkarri lagundu, garaiko kezkei erantzun... kaleko feminismoa da. Ni plazan hasi nintzen arte ez nekien feminismoak gorputza nola zeharkatzen zidan eta niretzat oso garrantzitsua da detaile txikietan ikustea gure aurrekoek borrokatu dutenagatik zenbat askatasun irabazi ditugun guk.

Gure garaiko feminista askok feminismoa hasieran bakarka eta liburuen bitartez deskubritu dugula uste dut, ez hainbeste herriko talde feministei lotuta. Agian gero artikulatu gara gure artean. Be-



raien kasuan igurtzia bete-betkoa zen. Guk eskura izan dugu feminismoaren inguruko material akademiko mordo bat, baina beste gauza batzuetan ez dugu aurrera egin behariek egin duten beste. Adibidez, nire adineko emakume pila batek dauzka erreparaoak bakarrik korrika egitera joateko. Eta hauek, teoria handirik gabe, espazio horiek hartu zituzten. Teoriarik egin gabe, baina beren denbora libreazaintzen ari zirela jakitun, hurrei bazkaltzen eman beharrean galtzamotozak jantzi eta korrika egitera joaten ziren, bazter orduetan eta taldeka. Sekulako diskurtsoak ematen dakigun emakume askok ez dakigu hori egiten.

Egin behar bada egin.

Gauzak ondo egiteak baino egiteak berak daukan garrantzia nabarmentzen dute. Josteko orduan, adibidez, ez dute perfekzioa bilatzen, funtzionaltasuna baizik. Egin, ahalik eta ondoen. Hobeto egin daitekeela? Ba egingo dugu hobeto. Hanka sartu dugula? Atera dezagun. Narratzaile horiei indar handia ikusten diet. Gure belaualdikoak perfekzioaren askoz biktimgoak garela uste dut.

Sekretu handietako bat dena bera delakoan nago, espazio bezala. Dendako atea irekita dago eta emakumeak lasai sar daitezke susmorik piztu gabe. Han sartu eta emakumeen mendi espedizio baten diseinuan parte hartzen dute, ia-ia oharkabeen askatasuna sortuz, espazioak eraikiz. Denda den toki lurtar, xume, zapalgarri horrek ahalbidetzen du gauzak egitea. Solemnitate falta horrek baimena ematen die gauzak lasai esateko eta lasai egiteko.

*«Amaren alaba banaiz, izebaren iloba eta haien lagun
ondorengoa naizen bezalaxe.
Haiengandik jaso dut emakume batek parranda egitea, kirola egitea, bidaiatzea, lanera joatea, iritzia ematea... arrunta dela»*

Gure herriaren gatazka politikoa ere presente dago.

Nondik kontatu dugu gatazka? Kontatzen dute ETaren atentatu bat nola bizi duten... dendatik. Hamabost metrora gertatu zen, hildakoa dendako aseguruia saldu ziena zen, bere alargunak parean lan egiten zuen, egunero ikusten zuten elkar. Nola kudeatzen da hori dendako egunerokotasunean? Ikuspuntu hori interesatzen zitzaidan. Edo ikastolen publikazioaren inguruko eztabaida –eskolako materiala saltzen dute–, gatazka ekologikoa –ibaiaren biziberritzea, industrietako ur zikinak–... Dendakoa oso toki pribilegiatua iruditzen zitzaidan hainbat gertakari eta aldaketa kontatzeko. Kasu honetan, xumetasunak ematen die hitz egiteko

autoritatea. Norbere lanbidea edo posizioa edozein izanda ere, gertakariak eta garaiek zeharkatu egiten gaituzte, baina toki bakoitzetik kontu daitekeena diferentea da.

Narratzaileen ondorengoa zara zu. Dendaoste horrek hazten ikusi zaitu.

Nire denbora behar izan dut horri daukan balioa emateko. Beti esan izan dut aitaren alaba naizela, beti esan izan didatelako haren iguala naizela. Fisikoki aitaren antza handia daukat. Aita euskara zuzentzailea da, gramatikak egiten ditu, letren munduan dabil, zorrotza da, exigentea da, etxean aitarekin egoten nintzen, bere eskutik literaturzaletu eta bertsozaletu nintzen... badirudi nire identitatearen parte

ezagunena haren irudira egina dela. Baina amaren alaba ere banaiz, izebaren iloba eta haien lagun onorengoa naizen bezalaxe. Haiengandik jaso dut emakume batek parranda egitea, kirola egitea, bidaiatzea, lanera joatea, iritzia ematea... arrunta dela. Nik nire buruari inoiz ez diot galdetu ea hori guztia egin dezakedan, nire aurrekoek egin dute dagoeneko. Emakume horiek transmititu didate gauzak egiteko eta esateko grina bat, pentsatzen dudana esateko premia bat. Eta baita hori guztia alaitasunari lotzeko premia ere. Nire buruari –beldur eta guztimugitzeko ematen diodan askatasuna haiei zor diedala sentitzen dut. Nahi badut, pentsatzen badut, nola ez dut idatziko hau edo bestea?

